

# Pastoralaren azkenaren zentzazioak

(The feeling at the end of the “Pastoral”)

Fdez. de Larrinoa, Kepa

Euskal Herriko Unib.

Filologia eta geografia eta Historia Fak.

Avda. de las Universidades, 5

01006 Vitoria - Gasteiz

BIBLID [1137-4454 (1999), 16; 181-188]

---

*Pastoralaren geroaz diren kezkek aurkezten ditu artikulu-egileak. Perry Anderson antropologoaren saioetan oinarrituz azkenaz honek egiten dituen interpretazio eta gogoetak arakutzen ditu. Zuberoaren hitzkuntza-komunitatearen amaia, George Hérellek, Jon Juaristik eta Arene Garamendik beren lanetan pastoralaren bukaeraz esaten dizkigutenak oroitarazten, Donostia eta Bilbon, hots, bere antzezleku ohikotik ateratzeak sorturiko kritikak, eta beste.*

*Giltz-Hitzak: Folk-antzertia. Antropologia kulturala. Zuberoa.*

*El autor da cuenta en este artículo de los temores existentes sobre el futuro de la Pastoral. Basándose en trabajos del antropólogo Perry Anderson, indaga sus interpretaciones y reflexiones sobre el final, y al aplicarlas a la comunidad lingüística de Zuberoa, nos recuerda lo dicho por George Hérelle, Jon Juaristi y Arene Garamendi en sus trabajos acerca del final de la pastoral; también incluye las críticas producidas por su representación en Donostia y Bilbo, es decir, por la salida de sus escenarios habituales.*

*Palabras Clave: Teatro folk. Antropología cultural. Zuberoa.*

*L'auteur prend en compte dans cet article les inquiétudes qui existent concernant l'avenir de la Pastorale. Se basant sur les travaux de l'anthropologue Perry Anderson, il analyse ses interprétations et réflexions sur la fin et des cultures en les appliquant à la communauté linguistique de Is Soule, il nous rappelle ce qui a été dit par George Hérelle, Jon Juaristi et Arene Garamendi. Il inclut aussi les critiques produites par sa représentation à Saint Sébastien et Bilbao, horsde leur cadre habituel.*

*Mots Clés: Théâtre folk. Anthropologie culturelle. Zuberoa.*

## SARRERA<sup>1</sup>

Zuberoako Pastoralaren folk-antzerkia desagertzeaz dagoela erran da lehen. Eta erraten da orain. Beraz, Pastoralaren desagertze- zentzazioa dago, eta egon da. Pastoralak bere esangura galdu duelako zentzazioa, alegia. Pastoralak azkendu delako zentzazioaz dihardu txosten honek, eta txostenean zehar azaltzen denez, Pastoralak errannahia galduta dabilela erakusten dituzten argudioak ezberdinak dira.

Iraultza Industrialak ekarritako bizimodu hiritarrearaino oinarritu zuten mendearren hasierako historialari eta soziologoek nekazal gizartearen, eta beronen agerpen kulturalen, azkena. Pastoralaren esangura Europako nekazaritzaren esparru historiko-ekonomikoan kokatu zuten, beraz Pastoralaren geroa laborantza geroari lotua ikusi zuten. Hiriak herriei nagusitzean, herrietako agerpen kulturalak desagertuko zirela zeuden, Zuberoako Pastoralak barne.

Literaturaren historian ezarri dute Pastoralaren errannahia filologoen, bereziki Erdi Aroko antzezpenean. Ikerketa-esparru honetatik Zuberoako folk-antzerkiari begiraturik gero, Pastoralak jenero literarioa zehatza da, zeinari epika-kutsu handia egokitu izan baitzaio, eta zeinaren heroeak kultura unibertsaletik hautatuak izan baitira. Pentsalari batzuk diotenez, ez dute egungo Pastoralak ospe handiko heroe lejegandorik antzeztu, eta bai ordea tokian tokiko pertsona ezagutuak. Baita ere susmatzen da egungo Pastoralak ekintza epikoari garrantzia gutxiago ematen zaiola lehenengoetan baino, lirika-arloa nabarmen jorraturik. Gaurko Pastoralaren heroe handien ezak eta kantu lirikoaren indarrak zenbait ikerlariri honako zentzazioa ekarri diote: Pastoralak fini da.

Egungo Pastoralak euren konbentzionalismo zaharra gero eta gehiago baztertu dutela ikusita, pertsona batzuk iradoki dute oraingo Pastoralak ez direla egiazko Pastoralak. Pastoralaren egiaztasuna ez bai denez, gaurko antzezpeneak zuzenak ote diren eztabaidatua da. Teatrak ezezik, gizarte-harremana da Pastoralak, ekoizpen kulturala. Orainsu arte Pastoralaren produkzioa Zuberoaren barruan suertatu bada ere, nabarmenago agertzen ari zaizkio Pastoralari kanpoko erreferenteak, batez ere hegoaldeko euskaldunen eta mundu kultural hiritarren eraginak. Erreferente hauen indarrez Pastoralak *xiberotarzuna* galdu duela argudiatu dute batzuk. Hau da, Pastoralak zuberotarra denez gero, antzeztu dena ez da Pastoralak, ez bada bertan zuberotarsuna errekonozitzen.

Bukatzeko, mundu ruraleko errito, ospakizun eta arte folklorikoak indartu dira azkeneko urteotan. Pastoralak ere ugartu dira urte-hamarkada honetan zehar, Pastoralaren bizkundera dagoela azpimarratzeraino. Hala ere, bizkunde honek Pastoralaren azkena ezkutatu duela aurreikusten dute pertsona batzuk.

## HISTORIAREN AZKENAZ

Anagrama argitaletxeak gazteleratu du Britaina Handiko Perry Anderson pentsalariak idatzitako *The Ends of History* entseia. Historiaren filosofiari buruz ihardun du Anderson-ek liburu honetan. Partikularzki, Estatu Batuetatik Francis Fukuyama-k idatzitako *The End of History?* saioa erreferentziaz hartu eta 'historiaren azkena' sostengatu duten argudioak aztertu ditu.

---

1. Txosten hau Barandiaran Fundazioak emandako diru-laguntzez ondu du egileak.

Bi esparrutan landu ditu liburu honetako egileak bere ideiak. Batean historiaren noziotik datozen gorabehera filosofiko-politikoak jorratu ditu. Bestean *azkena* hitzak dakartzan arazok. Lehenengo esparruan, Hegel-en heredentzia intelektuala egokia ote denez eztabaidatu du Anderson-ek, giza-taldeen joanetorri sozio-politikoak amaiera ba ote duen zalantzan jarriz. Bigarren esparruan Hermes-en dilema du aztergai, bertan honakoak arakatu baititu: berben itzulpengintzak ideien eta argudioen ezagutzan sortaraziko desbideraketak eta nahasketak, alegia.

Perry Anderson-ek ardura du ea azkenaren nozioa zentzazioa baino ez ote den. Eta miatu du ea significantza soziala agortu delako zentzazioa ote dagoen azkenaren nozioari erantsita. Halaber ikertu du Anderson-ek liburu honetan ea mende honetan azkenaren nozioa landu duten filosofoek gaizki ulertu ote zuten XIX mendeko filosofia. Zeren –Anderson-ek dio– historiaren azkenaz gogoeta dagiten egungo pentsalari frankok okerreko oinarri filosofikoe-tan baitaratzate euren argumentazioa, pentsalariok oker interpretatu baitituzte iragan den mendeko filosofoen kontzeptuak. Honetaz, Anderson-ek bere idazlanean nahi du erakutsi XIX mendeko filosofoek historiaren azkenaz baino, edo lekuz, historiaren helmugaz eta xedeaz gogoeta egin zutela.

Anderson-en ustetan, egungo pentsalari batzuk modu desegokian hartu dituzte maile-guz iraganeko filosofoen kontzeptuak, helmuga edo xedearen eta bukaera edo akabantzaren arlo semantikoak nahastuz. Eta horrelako nahasmenetik sorturiko ondorengo filosofikoa ez da edonolakoa izan, historiaren filosofian suertatu den ganbioa esanguratsua izan baita. Historiaren asmo edo xedeaz idaztetik historiaren bukaeraz idaztera igarotze honek ondorio garrantzitsua ekarri du, zeren historia oso modu diferentez endelegatu baita kasu bakoitzean, historiari zentzu bana emanez. Zentzu baten arabera, historia ibilian dabil. Bestearen arabe-ra, azkendu da. Historiaren bi zentzu hauexek Pastoralari buruzko gogoetan ere susmatzen dira. Alegia, han eta hemen entzun eta irakurtzen da Pastoralaz azkentzen ari dela, Pastoralak bere esangura galdu du-eta. Hala ere, Pastoralak antzezten dira. Orduan, nondik dator Pastoralaz laster amaituko delako zentzazioa?

## PASTORALAREN AZKENA

Perry Anderson-en gogoetak irakurri, Pastoralaren gainean aipatzen dena bildu, eta bitzuen arteko paralelismorik soegiten da, zeren mende honetan zehar maiz agertu baita Pastoralak berea egin duelako baieztapena. Halaber, arrazoi ezberdinak aitatu dira Pastoralaren azkena heldu dela frogatzeko. Pastoralaren xedeari buruzko arakatze akademi-koa, ordea, txikiagoa izan da. Pastoralaren azkenaz hedatu diren diskurtso batzu dakartzat ondoko lerrootara, Pastoralaren xedea analizatzea beste une baterako uzten dudalarik.

Pastoralaz izena daramaten antzezkizunak plazaratu arren, berez Pastoralaren folk-antzerkia bukatu delako zentzazioa dago bai Zuberoan eta bai Zuberoatik landa. Halako zentzazioa zergaitik sentitua den adierazi duten argudioak hainbat dira. Mende honetako hasieran azterlari batzuek pentsatu dute progresoaren legeak ekarriko ziola Pastoralari beronen azkena. Aspaldi honetan ere Pastoralak berea egin duelako eritziak entzun eta irakurri dira. Pastoralaren azkena heroe modernoaren nortasunean kausitu dela erran dute beste-tzuk. Zenbaitek dioenez, egungo antzezkizunezko aldaketa sakonek ekarri dukete Pastoralaren azkena. Eta, zuberotar komunitate linguistikoak laster azkena joko duenez, Pastoralaren amaiera ere bertan dela aurreikus beste zenbaitek. Banan-banan zehatz ditzagun argumentazio bakoitzaren gorabeherak.

## LEHENBIZIKO ARGUDIOA: PASTORALA EUROPAKO NEKAZAL TEATRUAREN AZKENA DA

Zuberoako Pastoralari buruz hedatu den definizio batek dionez, Pastoral Europaiko nekazal teatruaren moeta beregisako bat da. George H elle-ren idazlanetan dakusagu ikuspegi hau. Idazle honek XX mendearen hasieran egin zuen bere azterketa. Pastoralaren azkena sentitu zuela izkribuz utzi zuen. Azkenaren zentzazioa bitan susmatu zuen. Alde batetik, europear baseritarren 'azken' teatru-gisa bezala interpretatu zuen Zuberoako Pastoral, zeren ikusi baitzuen beste europear nekazarien teatru-erak desagertuta zeudela, progresoak eta orduan nagusitzenago ari ziren kultura hiritarrek eraginda. Bestetik, Pastoral bera ahulzen ari zela ikustean, Pastoralak amaiera laster joko zuela baieztatu zuen.

## BIGARREN ARGUDIOA: PASTORALAK EPIKAREN HEROE HANDIARI UTZI DIO

Pastoral literatura delako ikuskera euskal filologoek finkatu dute, euskal teatruik zaharrena delako ezaguera zabaldu dutelarik. Ikerlari batzuren eritziz, Pastoralaren ezaugarriak deigarriena epikotasuna da. Eta azpimarratu dute Pastoralen heroeak Europaiko tradiziozko literatura epikoarekin harreman dautela. Halako definizioan oinarriturik, Jon Juaristik eta Mar a Arene Garamendi Azcorrak Pastoralari azkena heldu zaiola iradoki dute. Azterlari hauen ustetan, egungo Pastoralaren gaiak eta irudigintza literatura eta heroe unibertsaletik zeharo urrundu dira, oso tokian tokiko sujetak eta erreferentziak nagusituz. Gero eta tokioagoko afera izatean, Pastoral nortasun literario identifikagarririk gabe gelditu da. Jon Juaristiri eta Mar a Arene Garamendi Azcorrari jarrai, Pastoralak bere burua galdu eta azkendu egin da jenero literario gisa.



Detalle de la representaci3n de la pastoral Allende d'Oihenart, en Muskildi 1985.

## HIRUGARREN ARGUDIOA: PASTORALAREN ZUBEROTARZÜNA AHULTZENAGO DOA

Donostiako Victoria Eugenia eta Bilboko Arriaga hiri-antzeztokietan errepresentatu zen *Harispe* Pastoral 1991. eta 1992. urteetan. 1994. urtean Behe Nafarroako Donaxiti herriak Pastoral bat antolatu zuen. Antzezpen haiek Pastoralaren azkenaz mintzarazi zuten Zuberoan zein hegoaldeko komunikabide euskaldunetan, erraniko arrazoiak ezberdinak izan zirelarik.

Pastorala Uhaitza Handiko jendeen ezagutza eta egikuntza delako pertzepzioa dago. Pastoral Zuberoako bertako kultur-ondare pribatua dela segituan dator halakoxe perzepzio-tik. Bestela erranda, *xiberotarzüna* eta Pastoralgintza banandu ezinezko gauzak dira. Elkarrekin gauzatzen diren prozesuak dira, hots. Pastoralgintza izakera sozial berezi baten ekarlea denez, zuberotar zenbaitek argudiatu dute Pastoral Zuberoatik at ez litzatekeela errepresentatu behar, nahiz eta *galtoa ukhen*, hau da, nahiz eta aukera euki. Arrazoitzat eman da zuberotar ez den audientzia baten aurrean Pastoral antzezteak ez duela batere zentzurik, halako ikusentzulego kanpotarrak ezingo luke-eta barneratu zuberotarrak barneratu ohi duena Pastoral baten aitzinean. Erran nahi baita, zenbait zuberotarrek interpretatu du Pastoralak bere berezko indarra galtzen duela testuinguru kulturaletik kanpo kokatzean. Baieztapen honen arabera, Zuberoatik at Pastoral indarge da, nortasungabea. Halako kontestu kultural urrenean Pastoral ulergaitza da, jokalarien eta ikusentzuleen arteko komunikazioa kontzeptuala baino bisuala eta azalezkoa izanez. Ondorioz –zenbaitek dio– Zuberoatik kanpo Pastoralak emateari ekitetik egiazko Pastoral zuberotarraren azkena datorke.

Halako eritziak kasu handia ematen dio Pastoralak denboran zehar bere kode sinboliko, estetiko eta linguistikoa landu izanari. Pastoralari logika berezia erantsi izan zaiolakoan, eta logika hori Arriaga eta Victoria Eugenia antzokietako audientziek nekez jasoko zutelakoan, harako bidaiak merezi ez zuela aipatu zuten zuberotar batzuk. Pertsonok, hala ere, aitortu zuten Pariseko edo Pabeko antzeztokiak aproposak direla Zuberoako Pastoral emateko.

Zergaitik? *A priori* Victoria Eugeniako eta Arriagako audientziak kulturalki arrotz egiten zitzaizkien, ezjakitun zuberotar teatru-arteaz. Kulturaz ezezik, politikan eta hizkuntzan ere arrotz egiten zitzaizkien Bilborako eta Donostiarako bidaiak anitz zuberotari. Hegoaldeko hiri hauetan Pastoral ematea hutsalezko espektakulua izanen zela aurrezertzen. Aldiz, Parisen edo Paben Pastoral emateari ondo zeritzoten, hiriotan emigrante zuberotarren kopuru handia dago-eta. Zuberotarren pertzepzioetik begiratuta, Frantziako hiri hauetara Pastoral eramanez eta kanpoko zuberotarren audientzia osatzen dute antolatzaileek. Honexek adierazten du zergaitik endelegatzen den Zuberoan, Paris eta Pabe hirietan Pastoralak errepresentatuz gero, berauek egiazko Pastoralak izatea, eta zergaitik sortzen duen zuberotar askorengan interes gutxi Bilbon edo Donostian errerepresentatzeak.

Era berean azpimarratu beharra dago Zuberoako bizilagun asko gaztaroan emigrante izan direla Frantziako hiriotan, edota bertan senideak dituztela. Arestiko adibideetatik datorenez, Pastoralari benetakotasuna kode kulturala konpartitzeak dakarkio. Ez badute jokalariek eta ikusentzulegoak kode sinboliko-komunikatiboa konpartitzen Pastoralaren *xiberotarzüna* barrelatzen da. Pastoral eta *xiberotarzüna* elkarrekin osatzen direnez, Pastoral izena eman zaion antzezpena zuberotarra perzibitzen ez bada, emaitza ez da egiazko Pastoral. Orduan, zuberotar ez den audientziaren aitzinean antzezturiko Pastoralak benetazko ez direla argudiatu dute zuberotar batzuk.

Urte-hamarkada honetan Pastoralak emanik izan dira hegoaldeko aski hiri zein herritan, Pastoralaren antzeztokiak nabarmen aldatu direlarik. Zuberotar batzuren ustetan Zuberoaren kanpoko antzeztokian Pastoral bere berezko errannahiaz erantzten da, batez ere bertara hurbiltzen den audientzia zuberotarra ez izatean. Hegoaldeko idazle batzuk ere ulertu dute

hegoaldea ez dela antzetzoki zuzena Pastoralak antzetzeko, are gutxiago hiriko antzetzoki burgesetan errepresentatzen direnean.

Hegoaldeko intelektualek ezbaidatu zuten Bilboko eta Donostiako antzoki handietara Zuberoako Pastoralak ekartzean Pastoralaren nortasuna ba ote zen bortxatuta gelditzen halako testuinguru espazialean. Idatzizko komunikabideetatik bideratu zen eztabaida, eritzi-artikuluetan adierazita. Idazle batzu teatru handien kontra agertu ziren, Zuberoako kanpoalde menditsu eta zabaleko agertokiak laga eta aberats apainduriko hiritar antzokietan sartzean Pastoralaren herri-kutsua desagertzen zela erranez. Alegia, Pastoralaren izakera berezia deusezten zen. Argudio honen arabera, kutsu herrikoia, naturaduna galtzen zuen Pastoralak hiriko teatru estalian. Halako kokapenean gezurrezko afera bihurtu zen Pastoralak, Pastoralari berez datzekion identitatea ezabatzen baitzen. Definizio suerte honen arabera, Pastoralak baserri-giroko ekoizpen kulturala da. Eta antzetzten denari baserri-giroa ez bazaio susmatzen orduan Pastoralak ez da. Bilbon eta Donostian halako eskenario-aldaketak Pastoralari bere nortasun-ezaugarri pisuzko bat kentzen ziola argudiatu zuten hegoaldetar batzuk, Pastoralaren kokapen berezkoa natura eta mendia baita, espazio kultural hiritarra Pastoralari ez dagokiola erantsiz.

1994. urtean Behe Nafarroako Donaixti herriak donaixtiarrez osaturiko Pastoralak antolatuta nahi izan zuen. Hasieran arazo ugariarekin topo egin zuen egitasmo honek, zeren benetazko Pastoralak izan zedin idazle, errejent eta dantza zuberotarrak behar zituen Nafarroa Beherara ekarrarazi. Beraz zuberotarren laguntza behar zuten. Eta hauexei laguntza eskatu eta haue-xengandik lortu behar laguntza delakoa. Pastoralaren sekretuak zuberotar ez denak bereganatzea zuzena ote zen mintzagai izan zuten zuberotarrek: hots, ea inguruko herriek Pastoralak antzetzten hasiz gero, kaltea letorkiokeen Pastoralari, zeren manexek Pastoralaren sekretuak eskuratu ondoren, zuberotarrena ezezik askosaz jende gehiagorena ere izanen litzateke Pastoralak. Adibide honek ere erakusten du norainoko indarra duen Pastoralak *xibero-tarżuna* binomioa. Ikuspegi honetatik ikusita, antzezlea zuberotarra denez kokolan jarritz gero, antzetzua Pastoralak ote den baita ere jartzen da auzian.

Laburbilduz, egungo Pastoralgintzaren dinamikak hiru egoera berri sortarazi ditu: hegoaldean maizago kasik Zuberoan baino Pastoralak antzetztea; nekazal kutsurik ez duten –beraz, naturaz aparte dauden– antzetzuneak erabiltzea; eta kulturalki zuberotar ez diren herriek Pastoralak antzetztea. Jende batzuk kontuak atera ditu bide hauetatik barrena sendo abiatuz gero Pastoral zuberotarraren azkena datorkeela.

## LAUGARREN ARGUDIOA: EGUNGO PASTORALA *PASTORALITIS* GAITZAK JOTA DAGO

Aspaldi honetako Pastoralen inguruan sortu den giro berriaren aurrean, Pastoralari azkeneko azkena heldu zaiolako zentzazioa dago Zuberoan zehar, delako azken hau oso azken paradoxikoa izanik. Azkeneko azkentze honen zentzazioa zertan oinarritzen den jabe gaitetzen, bi erreferente sozial behar ditugu kontutan hartu. Bata, XX mendearen erdialdean portamolde eta eginbide urbano frantziarrak, kanpaina osoan bezala Zuberoan ere, nagusitzenago joateak duintasun soziala kendu zien laborarien hizkuntzei, pentsakerei, bizi-moduei eta ekoizpen kulturei, beronen kariak folk-antzezkitzunen murriztu zirelarik. Gero eta herri gutxiago ziren gai Pastoralak edo Maskaradak antolatzeke, gero eta dantzari, kantari, baserri, eta *űskaz* ele-emale gutxiago baitzegoen Zuberoan. Ostera esanda, belaunaldi berriek gero eta gogo gutxiagoa zuten gurasoen mundu ekonomiko eta kulturalari eusteko.

Urte-hamarkada honetan, ordea, bailerako herriero dager Pastoralaren eskakizuna. Duela gutxi herri gehienek muzin egina zuten Pastoralak. Orain ikaragarri finkatua dute

Pastoralaren nahia eta egintza. Hau dela-eta, 1991. eta 1992. urteetan Pastoral bina antolatu ziren. Ondoko urteetan lehia handia izan zen herrien artean, zeren urtero agertu baitira hiruzpalau herri Pastoral emateko prest. Herriek elkarri hitzegun behar izan diote, urtez urte, errezkari banan-banan Pastoralak antzezteko, urteko bi Pastoral plazaratzean herrien artean istiluak piztu dira-eta. Egun Zuberoan Pastoral emateko *lista de espera* edo itxarote-zerrenda luzeska dago, erran nahi baita, datozen urteotarako Pastoralak zein herrik antzeztuko dituzten jadanik ezagutzen dela, zeren herri eta data zerrenda baitago, herri bakoitza bere txandaren zai dagoelarik.

Mende hasierako eta erdialdeko Pastoralak erreferentziaz hartuta, oraingo Pastoraletako partaidetza nabarmen emendatu da, askotaz arizale gehiago agertzen da. Gaur egunean, bistan da, Pastoralarekiko desira handia da.

Folk-antzezkizunen eta jokalarien kopuruari so eginez gero, Pastoralaren bizkundera gauzatu dela garbi dago. Pastoral sendatu eta hazi da, hots. Ordea, egoera hau paradoxi-koa dela dio zuberotar jende-talde batek, entzuten baita egoera hau benetazko bizkundera ez dela. Alegia, egungo Pastoralaren indar hau antza baino ez da. Areago, Pastoralak 'azken-teea' ren atarian gaudela gero eta gehiago aipatzen da.

Pastoralaren azkentze hau frogatzen duen argumentua hirukoitza da. Alde batetik, lehia bera dago. Hau da, herrien artean konpetitzeak liskarrak eta mesfidantzak sortzen ditu, zeren Pastoral antolatzeak diru-inbertsio handiak, administrazio-subentzioen eskaerak eta parte-hartzaileen denbora esijitzen baititu. Urte bakoitzeko Pastoral prestatzeko eskubidea zeinek duen gatazka-giroa ohi dakar-eta, batzuk uste dute Pastoralaren porrota berehala datorkeela. Beste alde batetik, egungo Pastoralgiroan herritar asko agertzen da jokoan partehartzeko-tan, eta Pastoralaren testuetan dagoen baino pertsona gehiago azaltzen da errepetizionetara, batez ere andrazkoen partetik, eta beronek antolakuntza-arazoak sortarazten ditu. Azkenik, honakoa ere entzuten da: herri guztiek nahi dute ahal bezain laster Pastoral bat eman, zeren baitakite beren azken Pastoral dela, Zuberoako gazteak ez baitira euskeraz mintzatzen, eta Pastoral euskeraz errepresentatzen da. Zuberoan euskerak berea egin du, eta euskeraren desagarketarekin batera berdin egiteko zorian dago Pastoralak.

## AZKEN HITZAK

Mende honetako hasieran Pastoralaren azkentzea perzibitzen zen. Europako laborantza ahultzen ari zen bezala Pastoral ere ahulduko eta desagertuko zelakoan zeuden pentasari batzu. Geroago aipatua izan da Pastoral bere izakeraz erantzia dagoela aspaldion: literatur esparruari begira, gaiak eta herreen betebeharrak burutik buru aldatu dira; antzezleei eta ikusentzuleei begira, hauexek heterogeneoagoak dira, Zuberoako kultura barnetik ezagutzen ez dutenak gero eta ugariagoak izaki; teknika artistikoak gero eta gehiago lantzen dira hiri-produkzio artistikoen ereduie begira, Pastoralari egokitu zaizkion herrikoi eta baserri estereotipoak indarra galduz doazelarik.

Egun mundu ruralaren dinamizazioa ikusten da. Pastoralaren munduan ere bizkundera bide dago. Hala ere, Pastoral hiltzen ari dela diote jende batzuk. Pertsona hauek azpimarratu dute sobera Pastoral antolatzeak arazo handiak sortzen dituela Zuberoan. Arazo bat herri zuberotarren eguneroko elkarbizitzari dagokio. Beste arazo bat Pastoralaren kontsumoaren esparruari. Zeren zor eta irabazkin ekonomikoak baitaude auzian, giro deserosoak nabarmentzen dira herrien artean, urte berberan bi Pastoral plantatuz gero. Halaber, pastoralzalea asetu eta akitzen da, Pastoral gehiegi berari eskeinita. Alegia, Pastoralen lar-eskeintzak Pastoralaren azkentza dakarke segituan. Gaur egunean, ondorioz, batzuk *bizkundera*

–Pastoralaren indarra– deritzotena, beste batzuk *pastoralitis* gaitza –Pastoralaren ahulezia– izendatu dute.

Betiko urperatu baino lehenago itoak dagien azken hats handia bailitzan ikusten da Zuberoan Pastoralaren paradoxa hau. Zuberoako herriak presaka datoz Pastoralak antzezte-  
ra zeren eta baitakite hamar bat urteren buruan Pastoralik antzezteko gai ez diratekeela:  
herriak txipitzen eta zahartzenago joatean, ia haurrik ez dator-eta, sortzen diren umeez eus-  
keraz hitzegiten ez dutelako, Pastoralik plazaratzeko txanzarik ez dagoke arrunt Zuberoan.

Mende honetan zehar, orduan, ‘Pastoralaren azkena’ mintzgai izan da. Modu askotara,  
ordea. Gizarte osagileak behatuz gero, hego Europako baserritarren azken antzertia agertu  
zaie batzuri. Ezaugarri literarioei dagokiela, azkendutako jenero bat bereiztu dute beste  
batzuk. Elkarkomunikaziorako kode kultural eta sinbolikoei begira, ohizko kokapen fisiko-geo-  
grafikoaren eta signifikantza-sarearen desagerketa susmatu dute beste zenbaitek. Laster  
Pastoral-jokalaririk izanen ez dela igarri dute beste batzuk.